

Aberatsa maite dut!



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Gurean, gurearekin gustura, gauzak osorik adierazteko erdaratara jotzeko premiarik sentitu gabe, hitzen bila eta haiek ekarri ezinda jardun ordez hitz-jario oparoz... Mihia dantzan jarri orduko, etorri marduleko hizketa jaiotzen zaigunean sentitu liteke euskara eroso gurekin. Eta kontua ez da hitz egiten ari denarena soilik, nor dugun entzuten ere erabakigarria da geu gustura eta eroso senti gaitezen, hartzaileak eta emaileak sortzen baitute harremana. Minetik aitortzen dut, behin baino gehiagotan itzali dudala irratia elkarrizketatua euskaraz hain moldakaitz aritzea eraman ezinda; eta esatariaren euskara traketsagatik ere... Hori larriagoa da. Larriegia da!

Denak behar du bere denbora, alferrik galtzen ez bada behintzat! Eta denborapasa bagabiltza? Nafarroan zer suma dabilzan betiko horiek pailazo euskaldunen zenbat emanaldi kenduko digute?

Horregatik hasi behar dut euskararen aberastasunak azaltzen ea horrek ere laguntzen duen aberatsago sentitzen eta izaten. Esate baterako, lehengo batean entzun nuen: "Atzo izan al zen hori?". Eta erantzuna: "Ez atzo baino bi atzo lehenago". Bada, begira zeinen hurrenkera ederra dugun: gaur, atzo, herenegun eta he-

renegun antxetik. Alderantzizko bidean joateko berriz: gaur, bihar, etzi eta etzidamu, gutxienez. Eta ñabardura moduan, gauari bagagozkio "bart" esango dugu azken gauari edo hurbilenari buruzko zernahi adierazteko eta horren aurreko gauean esateko "atzo gauean". Joan zen astean entzun nuena ere bada belarriak tente jartzeko modukoa, amak semeari arroz esnea eman zion katilua lepo beteta eta han zihoan semea ontzia dariola zeramala, gainezka alegia, eta hala bota zuen "piska bat gehiegi eman dit". Zenbat eman dizu piska bat ala gehiegi? Zeren horiek biak ongi egon daitezke esaldi berean baina, "asko samar..." edo "gehiegi eman dit" lirarteke aproposak. "Ilea luze samar daukazu eta piska bat moztu behar zenuke". Handi samar daukazu atorra eta ez "piska bat handi" baina argi dago handitxo daukazula atorra. Beraz ator hori zuretzat handiegia da!

Gaur goizean perretxikotan izan naiz eta dozenerdi bat onddorekin batera beste nikalo mordoska bat ekarri dut saskian. Adiskide batek galdetu dit "non hartu dituzu perretxiko horiek denak? Inon ez. "Perretxikoak basoan edo mendian bildu egiten dira!". Eta horiekin tortila bat egiteko arrautzak, "oiloeak egin egiten edo erruten dituzte", eta ez jarri! ●

"Mutikoa, lasaitu hire pitoa"



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Mutikoa, hiru titikoa, bat kendu eta bi titikoa". Buelta franko emanak dizkiot ahozko tradizioak belarrietara ekarritako erran horri. Familiaren adar euskaldunean –eta horrek, neure kasuan, zuhaitz genealogikoaren kimaketa dakar–, bereziki aitaren eta bi osabaren ahotan aditu izan dut, Bortzirietako euskararen airearekin. Bueltak eta itzuliak, hain zuzen ere, *gizonen arteko* moldeari semantika egoki bat eman nahirik: sekula ez dut ongi jakin, ageriko errimaz haratago, sakoneko mamirik ba ote zetzan.

Enegarren hipotesian nenbilerarik, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako

mutiko baten kexak jaioa eta hezia naizeneko Gasteizera ekarri nau brastakoan, 2019ko azarora: "Ez dakit zergatik, baina, aurtan, gimnastikako ordua dugunean, batzuek tontakeriak egiten dituzte aldage-lan". Gauza horien artean, adibidez, zakilen neurria konparatzea omen dago. Falokrazia, zentzurik etimologikoenean. Pitokeriarik ergelena garaile, mutilen artean.

"Mutikoa, lasaitu hire pitoa", atera zait nahi gabe, euskal tradizioa berrituz edo. Ez, jakina, pubertaroaren giro berri horrekin (zorionez) deseroso zegoen mutikoarentzat. Aldageletako buruzagientzat buruzakilentzat baizik. ●